


# Waterloo-n GALDUTAKOAK

XABIER ETXANIZ ROJO



# WATERLOO-N GALDUTAKOAK

*Narratiba, 98*

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2016ko azaroan*

Azalaren diseinua:

Asier Beltza

Azaleko irudia:

Xabier Etxaniz Rojo

Maketazioa:

Erein

© Xabier Etxaniz Rojo

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-168-4

L. G.: SS-1177/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

Xabier Etxaniz Rojo

WATERLOO-N  
GALDUTAKOAK



“Ari-naiz”-tarrei,  
seigarren urratsean trabaturik geratu zirenei,  
“Yo-es-que-necesito-el-EGA”-tarrei,  
beteranoei eta betierekoei,  
Joni eta Joneri,  
bai eta ikasturte-amaierako afarira joan ez zirenei ere,  
Korrikako petoa erosten dutenei,  
barnetegi batean maitemindu zirenei,  
Piliri eta Felixi,  
bai eta sekula ikasi ez zutenei ere,  
euskaraz bizi nahi dutenei,  
euskaraz bizi direnei,  
hildakoekin ez ezik, lankideekin ere euskaraz aritzen diren  
forentseei,  
Jaiori eta Nekari,  
bai eta di-da batean ikasi zutenei ere,  
ikasketak bukatu bitartean diru-apur bat irabaztearren irakasle  
aritu zirenei,  
dinosaurio bihurtu direnei,  
HABEko azterketak prestatzen dituztenei,  
Gemari eta Oswaldori  
bai eta idazlan proba gaintzen ez dutenei ere,  
irakasle nekaezinei eta erre direnei,  
Carlos Iturgaitzen, Patxi Lópezen eta Idoia Mendiaren irakasleei,

Eta, oro har,  
euskaltegiatiko mikrokosmosa osatu eta osatzen duten piztia guztiei.

Zer dio isiltzen denak isiltzen denean?...

Gure hitzak  
esan, berriz, esan  
ez daitezela ahaztu  
ez daitezela gal  
elur gainean  
txori-hanka arinek  
utzitako arrasto-sail  
ederra bezalaxe.

*Gure Hitzak*  
MIKEL LABOA

IRAILA

---





# 1

## ESKI-JAUZILARI BAT NORVEGIAN

Beldur naun, Bakarne.

Begiak itxi ditinat eta hutsa baino ez dinat ikusi. Trapezista bat naun, zirkuko funanbulista bat, pista nagusira aterra aurretik alanbrea indar handiz tenkatu duena eta, orain, ikusleak zerura begira daudelarik, alanbrea laxatzen hasia delako aierua duena.

Begiak itxi ditinat, Bakarne, eta ez haut ikusi. Elur-maluta zuriak ikusi ditinat. Elur-maluta zuriak, txikitxoak, ñimiñoak, hain txikiak, non ez diren lurra zuritzeko gai. Eta, han behean, urrunean, zelai berde bat, aldats piko berde luze bat eta publiko-andana, nik jauzia noiz egingo zain. Eski-jauzilari bat naun Norvegian, arrapala berde baten puntan dagoena eta, ikararen ikaraz, oihu egiteko ere gai ez dena.

Jamaika ikusteko jaioak gaitun, Bakarne. Hire hitzak ditun horiek. Edo, hobeto esanda, Joxean Sagastizabal idazleak Bob Marleyren ahotan jarritakoak, baina hik heuret zat hartu hituen. Dena hartzen huen heuret zat, oro xurgatzen huen, oro huen baliagarri, baita Sagastizabalek idatzi eta klasean irakurrarazi nizuen “Zorotariko Euskal Hiztegia” hartako errokeria haiek guztiak ere. Oro huen ongarrri, oro interesgarri.

Heure izena izan ezik.

Jamaika ikusteko jaioak gara, Mikel. Eguraldia seko jota dago azken urteotan, baina Norvegian ere elur gutxi egiten

du irailean, ganora handirik gabeko malutak, eskasak eta ezdeusak. Gutxiegi eski-jauzitan hasteko. Horixe esango hidade.

Eski-jauzilari bat naun Norvegiako irailean. Beldurrak airean dagoena. Zerumugan elur-maluta ñimiño zuriak eta haren azpian aldats piko berde bat ikusten duena.

Eta heriotza.

Heriotza ere ikusten dinat zerumugan. Eta heriotza ikustean ikusleak desagertu ditun. Han behean ez zagon jada publikorik, arrapala honek ez zaukan inor hari begira. Tradiziorik ez, uda-bukaerako eski-jauziek. Negukoek bai, noski. Negu gorrian jokatuco diren horietan harmailak lepo egongo ditun, elurrak aldats pikoa zurituko din, publikoak sarrera ordainduco din, eta hotza gorabehera, gogoz txalotuko ditin luze egindako jauziak. Irailekoetan, baina, ikuslerik ez, jakina baita inork ez duela koroa bakar bat ere ordaintzen eski-jauzilari baten muturrekoa ikusteagatik.

Publikoa beti zagon artistaren alde, Bakarne.

Artistaren porrota ikuslearen porrota dun. Eski-jauzilariaren muturrekoa publikoaren muturrekoa dun.

Eta ikaslearen akatsa irakaslearen akatsa ere badun.

Aspaldi ikasi ninan hori, euskaltegian eskolak ematen hasi nintzenean. Arbelari begira ikasi ninan, ikasleei atzea ematen nien bitartean, hiri atzea ematen ninan bitartean.

Kalean ikusi dizut.

Zer ikusi didazu kalean?

Ah, bai, kalean ikusi zaitut. Kalean ikusi zaitut, baina ez dizut ezagutu.

Irakaslea beti zagon ikaslearen alde eta publikoa beti zagon miresten duen artistaren alde. Nahiz eta, batzuetan, artista horrek errukirik gabe jipoitzen duen publikoa.

Hik geroago ikasi huen, arbelari begira heu jarri hintzenez. Orduan ohartu hintzen arrazoia nuela eta halaxe airtortu hidan, ikasleen ostikadek heure ipurmasailak jomuga hartu zituztenean.

Publikoa beti zagon artistaren alde, laztana, baina norvegiarrek ez zakiten euskaltegi bat zer den, ez ditzuten gustuko uda-bukaerako eski-jauziak, eta ez dun harritzekoa, eski-jauzilariaren muturrekoa beraiena ere izango dela jakin baitakite, eta Jamaika urrun zagon...

Kamerun bezain.

Barka ezan, maitea. Beldurrak akabatzen nagon eta ez zakinat zer idazten ari naizen. Askotan esan izan didan urrunegi joaten naizela nire pentsamenduetan, gertukoa baino nahiago dudala urrunekoa, eta ziurrenik ez zain arrazoirik faltako. Erosoagoa zaidan. Istorioak irakurtzea dinat lanbide eta betidanik gehiago erakarri naiten ezagutzen ez ditudan munduek dagoeneko ezagutzen ditudanak baino. Eta orain urrunegi joan naun. Norvegia, Jamaika, Kamerun...

Nahiago niken han bahengo. Hartara, nire beldurrak uxatuko nitizken, begiak itxiko nitizken eta ikusiko hinduket. Han ikusiko hinduket, Kamerunen edota Norwegian. Edo Jamaikan. Eta hire klasean sekula egon ez banaiz ere, han ere ikusiko hinduket erraz asko, arbelari begira, hire ikasleei atzea ematen, hire ikasleei azalpenak ematen.

Alabaina, ez haut ikusten, ezin haut ikusi.

Ez euskaltegian, ez Norwegian, ez Jamaikan ezta Kamerunen ere.

Donostian hago eta ez hago Donostian.

Bazakinat non hagoen eta, era berean, bazakinat ez dakidala non hagoen.

Ez zakinat zergatik ari naizen lerro hauek idazten, eta, era berean, bazakinat lerro hauek idatzi arte ez dudala begirik bilduko, ez dudala lo hartuko, ez dudala atsedetik hartuko.

Donostian hago eta ez zakinat non hagoen.

Ez zakinat ezta hagoen ere.

Eta horrek ematen zidan beldurrik handiena.

## 2 OHI BEZALA

Ohi bezala, Bakarne zazpi eta erdietan esnatu da. Ohi bezala, iratzargailurik gabe. Lehen esku-telefonoko iratzargailua programatzen zuen, baina Mikelekin ohea konpartitzen hasi zenetik –eta ia hiru urte joan dira jada– oso gutxitan egin behar izan du hori. Batetik, azken urteotan goizeko bederatzietan eskolak ematen hasi behar izateak Bakarneren erloju biologikoa findu duelako, eta bestetik, Mikel goizero goizeko zazpian korrika egitera ateratzeak nahikoa bermea eskaintzen diolako. Bere kabuz esnatu izan ez denetan, Mikel arduratu izan da musuka esnatzeaz, gehienetan dutxan sartu aurretik, inoiz edo behin, Bakarneren lo goxoaren plazeraz errukiturik, dutxatik atera berritan.

Ohi bezala, Bakarnek zazpi eta erdiak pasatxo zirenean zabaldu ditu begiak. Ohearen eskuinaldean egiten du lo, lo-gelaren atetik urrunen dagoenean. Hainbat ikerketa antropologikok diotenez –Bakarnek goi-urratsetako ikasleen arteko eztabaidetan maiz erabili duen argudioa da–, bikotearen kide bakoitzak ohearen zein aldetan lo egin behar duen erabakitzeko garaian gizonezko gehienek hartu ohi dute atetik gertuen dagoen aldea, emakumea babestearren, nonbait. Era inkontzientean hartutako erabakia izan ohi da, senak akuitaturikoa, hausnarketa handirik gabekoa, baina lurralde eta gizarte gehienetan errepikatzen dena. Ikerketei kasu egitera,

emakumeek gizonezkoen babesa bilatzen dute, eta XXI. mendean argudio funsgabea iruditzen bazaio ere, noizbait sutsu defendatu behar izan du, ikasleak zirikatze aldera.

Ez, Bakarnek ez du uste hori bere kasua denik.

Bere kasuan, Bakarne Mikelen emazte ohiak utzitako lekua okupatzera mugatu zen.

Eta orain, ohearen eskuinaldean etzanda, gorputza ohearen erdialderantz begira, begiak zabaldu ditu. Mikelek utzitako hutsunea dakusa. Mikelek utzitako izerdi-usaina sumatu du izaretan, gauaren eta logela itxiaren izerdia, bart izandako sexu-jolasen lurrina, txikitan, gurasoen logelan sartzen zenean nardagarria iruditzen zitzaion usain hori bera, eta urteen poderioz maitasun-seinaletzat hartu duena. Usain sarkorra da, epela. Logelako leihoa zabaldu ostean desagertuko da, baina horretarako altxatu egin beharko du.

Eta bere zangoak hain daude goxo izaren azpian.

Eta Bakarne hain dago goxo ohean etzanda.

Begiak berriro biltzeko tentazioa izan du. Tentazioa ikeragarria da. Jakin badaki Mikelek esnatuko duela atzera lo hartuz gero. Baina segituan bere buruari esan dio altxatu behar duela. Zerbait egin behar duelako sentrazioa dauka, nahiz eta ez gogoratu zer den. Zerbait egin behar du. Ez du gogoratzen zer den egin beharreko hori, baina zerbait egin behar duela esan dio bere buruari.

Edo ez.

Agian ez dio horrelakorik esan bere buruari. Ez daki. Ez daki hori esan dion ala ez. Ez du gogoan ezer pentsatu izana. Benetan esan al dio Bakarnek hori bere buruari?

Agian bulkada txikitxo bat baino ez da izan sentitu duena.

Ohi bezala, zazpi eta erdiak pasatxo dira. Begiak zabaldu ditu eta Mikel ez dago ohean. Ba al dago arrazoirik ohean etzanda jarraitzeko? Altxatu behar du. Ohi bezala.

Alabaina, hor bukatu dira Bakarnerentzat ohi bezalako guztiak.

### 3 IZUA

Ohearen erdialderantz etzanda baitago, Bakarneren gorputzaren pisuak eskuineko aldearen gainean hartzen du atsedean. Eskuineko aldakaren gainean, eskuineko zangoaren gainean. Eskuineko eskua masailaren azpian dago, hatzak masailaren kontra, belarritik gertu. Are: Bakarnek bere eskuineko eskuko hatzen kontzientzia erabatekoa dauka. Ez ditu amesgaiztoren batean galdu. Jendeak ez ditu hatzak galtzen lo dagoen bitartean. Gerta liteke eskua bera inurritzea, zurruntzea, baina berez hatzak ez dira amesgaiztoen munduan desagertzen. Desagertzekotan, amesgaiztoak desagertzen dira begiak zabaltean, ez hatzak, eta Bakarnek begiak zabaldu ditu jada eta bere hatzak hor daude. Hor daude hatzak eta azazkalak, falangeak eta metakarpo-hezurak, esku-ahurra eta haren marra meheak, institutuan irakurtzen ez zituen haiek, baina gustuko zituen mutilengana hurbiltzeko bidea eskaintzen ziotenak.

Hor sentitzen ditu hatzak, bai.

Eta une batez, horrexek eman dio atentzioa gehien.

Bart bere hatzak ez baitziren berunezkoak.

Altxatu behar du, baina. Horixe du Bakarnek hurrengo pentsamendua. Horren jabe da. Ez daki nork aldatu dizkion eskuin eskuko hatzak, ziur baitago oheratu zenean hezurharagizko hatzak zirela bereak. Bart sexu-jolasetan ibili ziren



Mikel eta bera. Laztan eta musu, zupa eta zirri, sarketarik gabeko jolasak bartkoak, elkar masturbatuz hasi eta nork bere buruari azken ukituak emanez bukatu, eta Bakarne ziur dago ezen, hatz pisutsu hauekin, ezin izango zuela ez Mikelen gustua egin ezta berea ere, ziur dago ezen, berunezko hatz hauek, plazera bainoago, min emango zutela. Zer gertatu zaion eskuari Bakarne lo zegoen bitartean? Ezin jakin. Arraroa da, baiki. Aspaldian gertatu zaion arraroena. Kezka bainoago, jakin-mina dauka. Kezka bainoago, ohetik altxatu behar duelako kontzientzia dauka. Berunezko hatzak ditu eskuineko eskuan, baina dena itzuliko da bere onera ohetik altxatuz gero.

Alabaina, berehala jabetu da gaur dena aldrebes dagoela. Ezkerretik jaiki naiz. Horixe erantzungo zukeen, baldin eta ikasleren batek ea nola esaten den euskaraz “levantarse con el pie izquierdo” galdetu izan balio. Baina gaur ezta hori ere, jaiki ezinik jarraitzen baitu, ez ezkerretik ezta eskuinetik ere. Bada mugitzeko gai, eta hori bada zerbait. Dena mantso doa, baina, eta sekulako ahaleginak egin ostean, azkenik lortu du ahoz gora jartzea. Ahoz gora dago, ohean etzanda, sabaiari begira eta dagoeneko jabetu da dena mantso doala gaur. Horixe du eskuineko alde osoa berunezko izateak, dena astun bihurtzen duela, dena mugigaitz eta nekoso.

Dena bihurtzen du arraro.

Berunezko hatzak zeuzkala jabetzean ez bezala, eskuineko alde osoa ere astun dagoela sumatzeak kezkatu du Bakarne. Ez oihukatzen hasteko beste, baina kezka handiagoa da jada. Ezkerreko eskua eskuineko besora eraman du, mantso

baina aparteko arazorik gabe, eta han pausatu du, ukondoa eta sorbaldaren artean. Jarraian haragia haztatu du. Ezkerreko hatzek eskuineko besoa estutu dute, eta bere kabuz mugimendu handirik ez duela egingo jabeturik, enborrerantz erakarri dute besoa. Informazio kontrajarria iristen hasi zaio Bakarneri, eta horrek durduzatu du. Izan ere, metal astunaren hoztasuna sumatzea espero zuen, berunaren gogorra haztatu behar zuelakoan zegoen, eta han beso arrunt bat dagoela sumatu du, hezur-haragizko beso bigun bat da ustez berunezkoa zena.

Arraroa da dena. Aldrebesa. Kontrajarria. Mantsoa.

Bai, horretaz ere jabetu da lehenago.

Ez daki zergatik ezta zertarako ere, baina altxatzea du helburu bakarra orain.

Bai, horretaz ere jabetu da aurretik.

Informazioa era nahasian datorkio. Mantso, baina era errepikakorrean, begizta amaigabe baten zurrunbiloan balego bezala.

Ez du bihotzekorik izan behintzat.

Egia da. Bakarneren aspaldiko ikasle batek, zeina erizain zebilen Bidasoko ospitalean, behin ikasgelan azaldu zuen ezen, bihotzekoa izatean, sekulako mina sentitzen dela gorputzaren ezkerreko aldean. Eta Bakarnek badaki ez duela minik sentitzen, ez ezkerraldean ezta eskuinaldean ere, zama eta pisua bai, geldotasuna ere bai, baina minik ez, eta horren ondorioz, bihotzekoa baztertzeko moduan dago, ikasle hark ondo azaldu baitzituen sintoma guztiak –sorbaldatik bularrera doan min handia, opresio ikaragarria, izerdi handia–.

Eta ikasle haren izena gogoratzen ez badu ere —ezta haren aurpegia ere, emakumea zelako usteaz landa, ezer gutxi—, gogoan du ganorazko ikaslea zela, fidatzekoa, trakets antzean baina iritzi sendoak botatzen zituena, eta gogoan du ikaskide bati erantzun ziola tontakeria galanta zela bihotzekoa izatean ez tul egin behar zelako uste hura, ez tul egiteak ez zaituela heriotzatik salbatuko, marrantarik itzelenak ere ez duela inor salbuesten bihotzekoa nozitzetik, eta onena, ataka gaizto horretan egonez gero, norbait ondoan edukitzea dela, bihotz-masaje bat egiteko gai den norbait ahal izatera, izuak geldiaraziko ez duen pertsona bat, eta telefono bat gertu edukitzea ere komeni zela.

Eta berunezko hatzik ez izatea —otu zaio Bakarneri— anbulantzia bati deitu ahal izateko.

Haatik, Bakarnek badaki ez duela bihotzekorik izan. Une honetantxe izugarri eskertuko luke, Mikel korrika egitera joan izan ez balitz. Bakarnek ez du inor behar, jakin baitaki ez dela bihotzekoa izan gertatu zaiona, baina Mikelek bere gorputzaren eskuinaldeari zer gertatzen zaion esaten asmatuko luke, letretako gizona izan arren, asmatuko luke. Ez, ez du inor behar, baina Mikelek gorputza ohearen ertzero eramaten lagunduko lioke, zutik jartzeko behar duen indarra emango lioke, eta zutik jartzean dena bere onera itzuliko litzateke, horixe du orain ziurtasun bakar, horixe du helduleku sendo bakar. Haatik, Mikel ez dago, lehen ikusi du bere hutsunea, eta oheratzen denean badaki astegun gehienetan oso gutxitan topatuko duela ohean begiak zabaltzean, eta gaur ere halaxe gertatu da. Mikelek beti dauka lasterketaren

bat prestatu beharra. Behobia-San Sebastian ez denean, maratoia da, eta maratoia ez denean, maratoui-erdia. Korrika egitera zaletu zen emaztearengandik bereizi ostean eta horrela jarraitu du azken urteotan. Bakarnek beti onartu du Mikelen zaletasuna. Onartu, bultzatu eta animatu. Korrikan maitemindu zen berarekin eta korrikan jarrai dezan nahi du Bakarnek. Are: orain hemen balego, alde egiteko esango lioke, zutik jartzen laguntzeko eskatuko lioke eta jarraian korrika egitera joateko.

Bakarnek altxatu egin behar baitu ohetik. Altxatu eta dutxara joan, ur epelak beruna eraman dezan.

Altxatu ostean, dutxatu ostean, dena itzuliko da bere onera.

Sabaiari begira, ezkerreko eskuaz eskuineko besoari oratu dio atzera ere. Indarra egin du, sekulako indarra, baina hori ez da behar duen euste-puntua. Bide horretatik besoa beregana hurbiltzea baino ez du lortu eta konturatu denean, ezkerreko besoa zabaldu du beste norabiderantz, ohearen ertzerantz, Jesukristo gurutziltzatu besamotz bat balitz bezala. Eskua koltxoiaren ertzean kakotu du, eta horrela euste-puntu egokiagoa lortu du, horrela indar egiteko modua dauka eta bere gorputz hezur-berunezkoa mugitu ahal izan du. Kostata, enborra eraman du ohearen ertzera. Era berean, ezkerreko oinarekin koltxoiaren ertzaren kontra indar eginez, zangoak eraman ditu ertzera. Mantso antzean bada ere, ari da helburura hurbiltzen. Gorputz osoa ohearen ertzean dauka.

Bere ezkerrean, berrogei zentimetrora, alfonbra gorria.

Berrogei zentimetroko amildegia.

Lehenengo aldiz, Bakarnek izuaren labana sumatu du bere sabelean sartzen. Izu irrazionala, noski, izu arrazionalik ez baita oraingoz asmatu, baina Bakarneren egoeraren larriak kontrakoa pentsatzera eramán gaitzakeen arren, berunaren zamarekin zerikusirik ez du. Bakarneren izua gorputzaren eskuineko aldeá martxan jartzeko duen ezintasunetik urrun dago oso, eta bihotzekoa ez duela izan jakiteak eman dion la-saitasuna ziztuan ezabatu du. Izan ere, alfonbra gorrira eror-tzeko aukerak izutu du Bakarne. Berrogei zentimetro baino ez dira, eta hala ere, bertigoá sentitu du. Altxatu behar du dena bere onera etorriko bada, dutxan sartu behar du urak beruna desagerraraziko badu, baina horretarako ohearen er-tzean eseri beharko du. Zorura erori eta alfonbra gorritik gora hasi behar izatea Everestera igotzearen parekoa iruditu zaio. Ohearen ertzean eserita, arropa eskegitzeko gauero era-biltzen duen aulkiaren bizkarrari helduko dio –burdina for-jatu eta zumezkoa denez, erraz eutsiko dio bere pisuari– eta euste-puntu horri helduta zutik jartzeko modua izango du. Alfonbra gorrira eroriz gero, berriz, ezinezkoa izango da. Ho-rren ziurtasun osoa dauka. Eta ziurtasun horrek erabat izu-tu du.

Izua irrazionala da eta bertigoak berrogei zentimetroko luzera dauka.

Atzera ere Mikel etorri zaio pentsamendura. Begiztak bi-rak ematen jarraitzen du, gelditu gabe, mugitu gabe, inora ez doazen mugimendu kiribilduetan. Atzera ere Mikelen hu-tsunea, Mikel korrikalari nekaezina, Mikel maratoizalea. Al- fonbra gorrira eroriz gero, ezinezkoa izango da altxatzea eta

Mikelen zain geratu beharko du mugitu ezinik. Altxatuz gero, dena bere onera etorriko da.

Horren guztiaren jabe da.

Horren guztiaren jabe zen izua sabela sastatzen sumatu duen arte.

Eta Bakarne jabetu da jada ez dela ezeren jabe.